


Amak eta lagunak dira sexualitateaz jakiteko Euskadiko gazteen informazio iturri nagusiak

Neskek mutilek baino neurri handiagoan galdetzen diote amari sexuari buruz informatzeko


[Gazteen Euskal Behatokia](#) sexualitateaz jakiteko zein izan den beren informazio iturri nagusia galdetu die 15 eta 29 urte bitarteko 1500 gazteri. % 27k ama izan dela diote, % 24k lagunak aipatu dituzte, % 19k irakasleak edo ikastetxeko beste langileak eta % 10ek bikotekidea. Gainontzekoek beste informatzaile batzuk aipatu dituzte baina batek ere ez du % 5a osatu. Aipatzekoa da amen eta aiten arteko aldea: lehenengoengana gazteen % 27k jo badute, bigarrengana % 4k baino ez.

Aurreko datuok Espainiako gazteei dagozkienekin alderatuz gero, ikus dezakegu sexualitatearen gaitan amak eta bikotekideak neurri handiagoan dira informazio iturri EAEn, Espainian baino. Aldi berean, gai honetan irakasleek eta hedabideek pisu gutxiago dute EAEn Espainian baino.




Sexualitateaz jakiteko neskek mutilek baino neurri handiagoan jotzen dute amengana (nesken % 35 eta mutilen % 19, hain zuzen ere), eta hori bera gertatzen da Espainiako estatu mailan (hor ere aldea antzekoa da, 17 puntutakoa).

Bestalde, mutilek neskek baino gehiago galdetzen diete aitei, baina ehunekoak ez dira neskek amekin dituzten bezain altuak: EAEko mutilen % 6k eta Espainiako mutilen % 11k diote aita dela beren informazio iturri nagusia.



Adinak eragindako aldeei dagokienez, azpimarragarria da adinean gora egin ahala gehiago direla informazio iturri nagusiak bikotekideak eta neba-arrebak izan direla diotenak.

Irakasleak eta gurasoak gehiago aipatu dituzte oraindik 20 urte bete ez dituztenek.



Oraingo analisiak Gazteen Euskal Behatokiak otsailean egindakoa, [Euskadiko gazteen jarduera sexualari buruzkoa](#), hain zuzen ere, osatzen du. Bietan oinarria 2012an EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen lagin adierazgarri bati egindako inkesta izan da. Espainiako gazteei dagozkien datuak 2010ean Espainiako Gazteria Institutuak (Injuve) egindako ikerketa batetik atera ditugu; "[Jóvenes y diversidad sexual](#)" du izenburua ikerketa horrek.

Bestalde, gazteen sexualitatearen gaiaren inguruan Gazteen Euskal Behatokiak gazteekin lan egiten duten agenteentzako ikastaroa antolatu du. Ikastaroak "[Gazte sexualitatearen arretarako erronka berriak](#)" du izenburua eta Bilbon, Behatokiaren egoitzan, egingo da martxoa hiru egunetan banatuta (5, 12 eta 19).

Jarrai iezaguzue gizarte-sareetan!

